

Konpromisoen jarraipena 2019

| KONPROMISOA | NOLA NEURTZEN DUGU (adierazlea) | DATUAK, LORTUTAKO EMAITZAK | OHARRAK |
|---|---|---|---|
| Gure zerbitzuak erabiltzeko, herriko ikastetxeek lehentasuna izango dute. | Udalako Ingurumen Eskolako zerbitzuak eskatu eta erabili barik geratu diren herriko ikastetxeen ehunekoa. | Herriko ikastetxe guztiek eskatu eta erabili dituzte gure zerbitzuak. | Helburua bete da. Horretaz gain, herrikoak ez diren hainbat ikastetxek ere erabili dituzte gure zerbitzuak. |
| Konpromisoa hartzen dugu ikasleen ahotsa entzuteko eta haien iritzia jasotzeko. | Kontuan hartzen dugu zenbat iritzi jaso diren saioak amaitzerakoan eta zenbat idatzi diren Bisita Liburuan. | Bisita Liburuan 29 iritzi jaso ditugu. Denbora falta dela eta, zenbait ikasle iritzia eman gabe geratu dira saioa amaitzerakoan. | Bisita Liburuan idatzi dituzten iritzien artean gehien aipatzen dute “naturarekin harreman zuzena izatea eta horren bitartez ikastea”, beraz, ekintza mota horiek indartuko ditugu. |
| Ikastetxeekin aurretiaz adostutako saio guztiak emango ditugu, nahiz eta finkatutako egunetan aldaketak eman. | Ikasturtean adostutako eta egindako saioen kopurua alderatuta. | 187 saio adostu dira ikastetxeekin eta guztiei eman zaie zerbitzua, beraz %100a. | Konpromisoa guztiz bete da, nahiz eta eguraldiak behartu gaituen zenbaitetan moldaketak egitera prestatutako programazioan. |

| | | | |
|--|--|--|--|
| <p>Kexei eta iradokizunei erantzutea gehienez 10 egun balioduneko epean.</p> | <p>Epe barruan erantzuten diren kexen eta iradokizunen ehunekoa.</p> | <p>Ez ditugu kexarik jaso</p> | |
| <p>Udalako Ingurumen Eskolako langileok modu egokian egingo dugu lan, eta erabiltzaileekin tratu atsegina erakutsiko dugu.</p> | <p>Galdeketa erabiltzaileek eskolako langileen lanari buruz zer iritzi ematen duten, eta kexarik ez aurkeztea horri buruz.</p> | <p>Erabiltzaileek 9,42ko batez besteko puntuazioa eman diote galdera honi.</p> <p>Ez dira kexarik jaso honi buruz.</p> | <p>Konpromisoa bete da.</p> |
| <p>Udalako Ingurumen Eskolako egonaldiak izango dira ikasleen mailari eta adinari egokituak, baita erabiliko den materiala ere.</p> | <p>Gai honi buruz kexarik ez jasotzea, eta galdeketa erabiltzaileek zer gogobetetze maila erakusten duten.</p> | <p>Galdeketa lortutako emaitza 9,12 puntu izan da.</p> <p>Ez dira kexarik jaso.</p> | <p>Konpromisoa bete dugu, hala ere, galdeketa erantzun dutenen artean hiru taldek aipatu dute ikasleek ez diotela etekin handirik atera ekintza jakin bati.</p> <p>Beste guztiek, aldiz, oso positibotzat baloratu dituzte egonaldiak.</p> |
| <p>Eskolako Agenda 21eko hezkuntza programa diseinatu eta garatuko dugu, betiere ikastetxeek urtero aukeratzen duten gaiarekin lotuta.</p> | <p>Ikasturtean zenbat saio egiten ditugun Eskolako Agenda 21ean.</p> | <p>Guztira 110 saio egin ditugu Eskolako Agenda 21ean, egonaldi eta kaleko saioen artean.</p> | <p>2018-2019ko ikasturtean Baserri Kultura gaia izan da jorratu duguna Eskolako Agenda 21ean, ikastetxeek aukeratutakoa.</p> |